



AZOKA BEREZIA BOLIVIARREI LAGUNTZEKO

Alegiako Kultur Batzordeak Bigarren Eskuko I. Azoka antolatu du biharko; ateratako dirua Boliviara bidaliko dute >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-11-22

VIURTEA 1.566.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Errusia izango da aurtengo Titirijai jaialdiko herrialde gonbidatua

TOLOSA Azaroaren 29tik abenduaren 8ra arte iraungo du, eta 29 txotxongilo konpainiak hartuko dute parte denera

BEREZIA «Aldi baten amaiera adieraziko du aurtengoak, To.Pic gabeko azken jaialdia izango baita», azaldu dute >3



Pintxo lehiaketako irabazleak, euren lana eskuan dutela, atzo eginiko agerraldian. IÑIGO TERRADILLOS

PINTXORIK ONENA, ANGEL OYARZABALENA

TOLOSA Lainoa tabernako sukaldariak irabazi du pintxo lehiaketa; bigarren, Jose Luis Garcia izan da eta hirugarren, Aitor Riaño >4

Genero indarkeria salatzen hainbat ekitaldi

TOLOSALDEA Tolosan nahiz Villabonan antolatu dituzte Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira >5

«Iritzi kritiko guztiak baztertu nahi ditu Udalak»

TOLOSA Ezker abertzalearen ustez, «Udalaren parte-hartze eredu hutsaren hurrengo da» >6

Foto Depilazioa

Hanka osoak + itarrendak
250€
Lanendabiazko sesioa

5 sesioko bonoa
1.250€

Bukatu da behingoz hilearen arazoa

Hau da zure Depilotal zentroa:

Shuyana
C/ Eskolapioetako Lore nº3, 1ºA
20.400 Tolosa - Gipuzkoa
Tel. 943 67 54 89

Más información en www.depilotal.com o 900 585 000

FotoDepilación
FotoFluoración
FotoTratamiento
FotoTratamiento Avanzado

ISTORIOEI LEIHOAK IREKIZ

Kultura » Zazpi egun besterik ez dira falta Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia hasteko; Guztira, 28 konpainiak hartuko dute parte.

ESTI EZEIZA

Astebete barru zabalduko ditu atak 26. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiak. Hamar estatu ezberdinetako 28 konpainia izango dira Tolosan, jendearen irribarreak, algarak, malloak eta orohar, sentimenduak pizteko asmoz. Jaialdiaren kartel iragarleak erakusten duen bezala, antzezlari bakoitzaren leio bat irekiko da, barnean istorio ezberdin eta berezi bat gordetzen duen zirrikitua.

25.000 ikusle inguru hurbilduko dira Tolosara, Titirijaiak irauten duen 10 egunetan. Denera, 80 emanaldi izango dira bertan, eta hauz gain, beste hainbat, Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait herritan.

Atzo aurkeztu zuten jaialdia Donostian. Bertan izan ziren, jaialdiko zuzendaria den Miguel Arretxe; Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakaria den Ana Arretxe; Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea; Mikel Irizar, Kutzako Kultura, Aisia eta Lankidetzak saileko arduraduna eta Maria Jesus Aranburu, Foru Aldundiko Kultura eta Euskara diputatua.

Tolosako Ekinbide Etxeak antolatatu du beste behin ere jaialdia, eta oraingoan, 400.000 euroko aurrekontua izan du. Datu hauek lu-zatu zituen atzo Ana Arretxe, eta

gaineratu, batez beste, ikusle bakoitzaren gastua 16 eurokoa da. Halaber, tolosarraren hitzetan, «honek erakusten du, dirua ongi kudeatzea lortu dugula, aurrekontu baxua izan arren, kalitate handiko jaialdia antolatzea lortu baitugu».

Aurkezpenean parte hartu zuten hizlariek, egun, pil-pilean da goen gaia hartu zuten ahotan, hau da, krisiarena, honek eragina baitu horrelako kultur egitasmoetan. Hala ere, Bildarratzek ikuspuntu baikorra erakutsi zuen esanaz, «inoiz ez da geratuko Titirijai bezalako proiektu on bat gauzatu gabe diru arazoengatik bada». Bestalde, Maria Jesus Aranburuk gaineratu zuen, «26 urte hauetan, krisi garai gehiago ere bizituko zituen jaialdiak, baina hauek gaintzeko gai izan da. Honenbestez, hau ere igaroko da».

Errusiara leihoa

Aurten herrialde gonbidatua Errusia izango da eta bere txotxongiloen unibertso leihoa zabal-tzera dator, txotxongilo artean tradizio luzeko herrialdea da, bere maisu handi eta ospetsuen bidez eskola sortu duen herrialdea. Errusiara eskainitako leiho honek bere ardatza Sergei Obratsov, Vo-



Atzo aurkeztu zuten jaialdia, Donostian; Madrigo Teatro de la Lunak bere azken lana estreinatuko du. EZEIZA/HITZA

ronetz, Nazioko Antzerkia eta Yekaterinburgoko Antzerki Nazionaletik datozen funtsekin erakusketazabal eta adierazgarri batean izango du.

Erakusketaren funtsa osatzen duten hiru konpainia handi hauei elkartzeko zaie programan, San Petersburgoko Brodaychaga Antzer-

ki Nazionala eta Tomskeko 2+K Antzerkia.

Berrikuntzekin dator jaialdia

Titirijairen historian lehendabiziko aldiz, Thailandia eta Sri Lankako konpainietako emanaldiak ikusteko aukera izango da. Txotxongilo-aren artea ulertzeko bi modu des-

berdin, geografikoki eta kulturalki hemendik hain urrunak eta hain desberdinak beraien artean; lehenda oso birfindua eta sakonki herrikoa bestea.

Aurtengo edizioan ere ekoizpen berrien aldeko apustua egingo du eta bi lan estreinatuko dira. Behi Bis Donostiako taldearen Murren

» 26. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

Azaroak 29, larunbata

■ **Leidor.** Errusiako Obratsov txotxongiloen antzerki taldearen eskutik *Lo mejor de Obratsov* (Obratsov-en onena) ikusi ahal izango da, 20:00etan.

■ **Kasinoa.** Andaluziatik dator Angeles de Trapo, *El espíritu del Cid* (Cid-en izpiritua) obra taularatzeko. Emanaldia 17:30ean izango da.

Azaroak 30, igandea

■ **Leidor.** Microcosmos, Herrialde Katalanetako taldea Tolosan izango da *Baobab* aurkezten. Saioa 17:30ean izango da.

■ **Kasinoa.** Errusiatik dator Ekaterinburgoko txotxongilo taldea, *¿Quien va a despertar el sol?* (Nork esnaraziko du eguzkia?) lana aurkeztera etorriko da. 17:30ean izango da emanaldia.

■ **Zerkasua.** Sri Lancako Tradicional Puppet Art Museumek *Tradicional Puppet dances* (Txotxongiloen dantza tradizionalak) taularatu du. Ekitaldia 17:30ean hasiko da.

■ **Kultur Etxea.** Argentinatik dator *Asomados y escondidos* taldea, *Huevo de ida y vuelta* (Joan eta etorriko arrautzaxoa) lana aur-

kezteko. Emanaldia 12:30ean hasiko da.

■ **Udal Musika Eskola.** Errusiako, San Petesburgoko txotxongilo taldeak *Marionetas sobre el agua* (Txotxongiloak ur gainean) obra antzeztuko du. Bi saio izango dira, lehena 17:30ean, eta bigarrena, 19:30ean.

Abenduak 1, astelehena

■ **Leidor.** Errusiako Obratsov txotxongilo taldearen eskutik *Lo mejor de Obratsov* (Obratsov-en onena) ikusi ahal izango da, 12:00etan, eta 15:00etan.

■ **Kasinoa.** Errusiatik dator Ekaterinburgoko txotxongilo taldea, *¿Quien va a despertar el sol?* (Nork esnaraziko du eguzkia?) lana aurkeztera etorriko da. 11:00etan eta 15:00etan izango dira emanaldiak.

■ **Kultur Etxea.** Argentinatik dator El Chonchon taldea, *Romeo eta Julieta* (Romeo eta Julieta) lana aurkeztera. 17:30ean hasiko da.

■ **Udal Musika Eskola.** Alemaniako The Fith Wheel-ek, *Cabaret sobre hilos* (Kabareta, harien gainean) lana aurkeztuko du. Hiru saio izango dira: 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan.

Abenduak 2, asteartea

■ **Leidor.** Thailandiatik dator Theatre Hobby Hut taldea. Honek Apsara izeneko lana aurkeztuko du, 12:00etan, eta 15:00etan.

■ **Kasinoa.** Errusiako Teatro 2 Plus K taldeak *Historia de una marioneta* (Txotxongilo baten istorioa) aurkeztuko du. 11:00etan eta 15:00etan izango dira saioak.

■ **Kultur Etxea.** Buenos Aires Tite-res konpainiaren emanaldia izango da 10:30ean, 15:00etan eta 17:30ean.

■ **Udal Musika Eskola.** Errusiako, Voronezh txotxongilo taldeak *El soldado y la bruja* (Soldadua eta sorgina) lana aurkeztuko du. 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan izango dira saioak.

Abenduak 3, asteazkena

■ **Leidor.** Bulgariako Plodiv taldearen saioa izango da 12:00etan, eta 15:00etan. *Los 3 hermanos y la manzana* (Hiru anaia eta sagarra) aurkeztuko dute.

■ **Kasinoa.** Italiako Alegre konpainiak *Marioneta en busca de manipulación* (Txotxongiloa esku-har-tzearen bila) lana aurkeztuko du 11:00etan eta 15:00etan.

■ **Kultur Etxea.** Thailandiatik dator Theatre Hobby Hut taldea. Honek Apsara izeneko lana aurkeztuko du, 10:30ean, eta 15:00etan, 17:30ean.

■ **Udal Musika Eskola.** Madrigo La Canica taldearen eskutik *Yaci y la muñeca de maíz* (Yaci eta artozko panpina) lana izango da ikusgai, 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan.

Abenduak 4, osteguna

■ **Leidor.** Herrialde Katalanetatik dator Princep Totilau taldea, *Seis Juanes* (Sei Juan) lana aurkeztuko du. 12:00etan eta 15:00etan izango dira saioak.

■ **Kasinoa.** Euskal Herriko Bihar Behi Bis antzerki taldeak *El viaje de Mur* (Mur-en bidaia) lana aurkeztuko du, 10:30ean, 15:00etan eta 17:30ean.

■ **Kultur Etxea.** Euskal Herriko Behi Bis antzerki taldeak *El viaje de Mur* (Mur-en bidaia) lana aurkeztuko du, 10:30ean, 15:00etan eta 17:30ean.

■ **Udal Musika Eskola.** Herrialde Katalanetatik dator Nu taldea, Joanen ilargia lana aurkeztuko du. 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan izango dira saioak.

Abenduak 5, ostirala

■ **Leidor.** Madrigo Teatro de la Luna taldeak estreinatuko du *El Jardinero* (Lorezaina), bere obra berria. Bi emanaldi izango dira, bata 12:00etan, eta bestea, 19:00etan.

■ **Kasinoa.** Errusiako, Voronezh txotxongilo taldeak *El soldado y la bruja* (Soldadua eta sorgina) lana aurkeztuko du. 11:00etan eta 15:00etan izango dira saioak.

■ **Kultur Etxea.** Gaztela Leonetik dator Maria Parrato, *Palabras de caramelo* (Karamaluzko hitzak) lana aurkeztuko du. 10:30ean, 15:00etan eta 17:30ean izango dira saioak.

■ **Udal Musika Eskola.** Bulgariako Plodiv taldearen emanaldia izango da 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan. *Los 3 hermanos y la manzana* (Hiru anaia eta sagarra) aurkeztuko dute.

Abenduak 6, larunbata

■ **Leidor.** Madrigo Teatro de la Luna taldeak estreinatuko du *El Jardinero* (Lorezaina), bere obra berria. 19:00etan hasiko da emanaldia.

■ **Kasinoa.** Argentinatik dator

bidaia eta Madrilgo Teatro de la Lunaren Lorezaina. Migel Arretxe, Titirijako zuzendariaren hitzetan, «antzezlana bat, horrelako jaialdi batean estreinatzea nahiko arriskutsua da, baina erronka hori gainditzeko prest gaude».

Teatro de la Luna konpainiaren antzezlana, taldearen beraren eta Mariano Arsuaga margolariaren nahiz Maria Cueto eskultorearen arteko elkarlanaren ondorio da.


Prozesu sortzaile luze eta eman-korra, bere garapena To-Pickeko ekoiztutako erakusketa batean gauzatzen da eta jaialdian zehar Leidorreko sarreran ikusgai egongo da.

To.Pic gabeko azken jaialdia

Tolosako Ekinbide Etxeko kideak ziur daude aurtengoa, To.Pic gabeko azken jaialdia izango dela. «Horregatik, posible da etapa bat

amaituko duen aldia izatea eta berri baten ateetan jarrirako gaituen beste baten hasieran aurkitzea» dio Arretxek.

Ziklo honen amaiera handi eta arrakastatsu gisa, egitarau bikaina prestatu dute Tolosako Ekinbide Etxekoek eta Titirijai 08an parte hartuko duten adin guztietako hogeita bos mila ikusleak, harritzea, dibertitzea eta entretenitzea espero dute.



Aurtengoa Errusiako txotxongiloei irekiko zaie leihoa; ikusgai izango da erakusketa Aranburu jauregian. HITZA

Asomados y escondidos taldea, *Huevo de ida y vuelta* (Joan eta etorrirako arrautzatxoa) lana aurkezteko. Emanaldia 17:00etan hasiko da.

■ **Kultur Etxea.** Venezuelako Vengala konpainiak *Filipo* antzezlana aurkeztuko du 12:00etatik aurrera.

■ **Udal Musika Eskola.** Herrialde Katalanetatik dator Eugenio Navarro, *Malic en China* (Malic Txinan) lana aurkezteko asmoz. 17:30ean izango da saioa.

Abenduak 7, igandea

■ **Leidor.** Andaluziatik dator Buho & Maravillas konpainia, *Los músicos de Brenes* (Brenes-go musikariak) lana aurkezttera. Saioa 19:00etan hasiko da.

■ **Kasinoa.** Errusiako Teatro 2 Plus K taldeak *Historia de una marioneta* (Txotxongilo baten istorioa) aurkeztuko du. 17:00etan hasiko da emanaldia.

■ **Berdura plaza.** Sri Lancako Tradicional Puppet Art Museumek *Tradicional Puppet dances* (Txotxongiloen dantza tradizionalak) taularatuko du. Ekitaldia 17:30ean hasiko da.

■ **Kultur Etxea.** Euskal Herriko La enana naranja konpainiak *Inmundo, doblador de barotes* (Inmundo, barroteen tolestatzaila) lana aurkeztuko du. 12:30ean izango da emanaldia.

■ **Udal Musika Eskola.** Gaztela Leongo La picara locuela taldeak *Juego de polichinelas* (Polixinelen jokua) aurkeztuko du 17:30ean.

Abenduak 8, astelehena

■ **Leidor.** Herrialde Katalanetatik dator Princep Totilau taldea, *Seis Juanes* (Sei Juan) antzezlana aurkezteko. 19:00etan izango da saioa.

■ **Kasinoa.** Errusiako Teatro 2 Plus K taldeak *Historia de una marioneta* (Txotxongilo baten istorioa) aurkeztuko du. 17:00etan hasiko da emanaldia.

■ **Kultur Etxea.** Errumaniatik dator Arlechino txotxongilo konpainia, eta *La pequeña bruja* (Sorgin txikia) aurkeztuko du. 12:30ean hasiko da emanaldia.

■ **Udal Musika Eskola.** Errusiako, San Petesburgoko txotxongilo taldeak *El patito feo* (Ahatetxo itxusia) obra antzeztuko du. 17:30ean izango da saioa.

Helduentzako emanaldiak

■ **Abenduak 1, astelehena.** Kasino elkarteak, Gaztela Leongo La picara locuela taldeak *Juego de polichinelas* (Polixinelen jokua) aurkeztuko du 20:30ean eta 22:30ean.

■ **Abenduak 2, asteartea.** Kasino elkarteak, Italiako Alegre konpainiak *Marioneta en busca de manipulación* (Txotxongiloa esku-hartzearen bila) lana aurkeztuko du 20:30ean eta 22:30etan.

■ **Abenduak 3, asteazkena.** Kasino elkarteak, Argentinatik datorren El Chonchon konpainiak, *Romeo y Julieta* (Romeo eta Julieta) lana aurkeztuko du. 20:30ean eta 22:30ean izango dira emanaldiak.

■ **Abenduak 4, osteguna.** Kasino elkarteak, Argentinatik datorren Buenos Aires Titeres taldeak *Bartango* lana aurkeztuko du. 20:30ean eta 22:30ean izango dira saioak.

■ **Abenduak 5, ostirala.** Kasino elkarteak, Herrialde Katalanetatik datorren Eugenio Navarrok *Reinas* (Erreginak) antzezlana aurkeztuko du. 20:30ean eta 22:30ean izango dira saioak.

Leire Olaberriak zilarra irabazi du pistako Munduko Kopan

Ikaztegieta » Evgenia Rominuta errusiarrak hartu dio aurre, azkenaurreko esprintean; 15 puntu eskuratu ditu Olaberriak.

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria ikaztegiatarrek zilarrezko domina irabazi du Melbourne (Australia), pistako Munduko Kopan, puntuazio proban.

Pasa den abuztuan, Pekingo Olinpiar Jokoetan, brontzea irabazi zuen Ikaztegieta. Atzokoan,

berri, Evgenia Romaniuta errusiarrak aurrea hartzea lortu zuen, azkenaurreko esprintean. Hala, hamasei puntu lortu zituen Romaniutak, hamabost Leire Olaberriak.

Gaur jokatu du hirugarrena eta azkeneko jardunaldia.

Euskaldunen artean, berri, Unai Elorriaga bizkaitarrak ere zilarra lortu zuen taldekako jazarpen proban. Eloy Teruel, David Muntaner eta Toni Tauler-ekin aritu zen Espainiako selekzioan. Australia nagusitu zitzaizen finalean.

Eskualdeko pultsulariak gaur, Zarautzen

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederrako pultsulariak Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa, Florian Simon Memoria-ila, ariko dira gaur Zarautzen. Abenduaren 20an Gijonen izango den Espainako Kluben Arteko Txapelketako aurreko faserako baliozkoa izango da.

Pasa den larunbatean ere izan

zuten lehiaketarik pultsulariek, izan ere Iruñeko Anaitasuna Klubean Euskadiko Kriteriuma jokatu zuten, Kadeteen Mailan.

Bertan lan ona egin zuten eskualdekoek, eta postu hauek lortu zituzten: 3. postua Adrian Sasiain; 5. postua Axier Gallego; 7. postua Koldo Saracho; eta 10. postua Kell-yam Quintana.

Elikadura trastornoak izango dituzte hizpide datorren asteartean

Villabona » Jesusen Bihotza ikastolan izango da 18:00etan, eta anorexia, bulimia, bigorexia... ariko dira

ERREDAKZIOA

Elikadura trastornoak izeneko hitzaldia antolatuko dute datorren hilaren 25erako, asteartearekin, 18:00etatik aurrera, Jesusen Bihotza ikastolako eraikinean, 1. solairuan.

ACABE elkarteak psikologo batek zuzenduko du hitzaldia eta bertan, anorexia, bulimia, bigorexia... izango ditu hizpide, besteak beste.

Ekimen hau Villabonako Udaleko Gizarte Zerbitzuek bultzaturikoa da eta guraso guztiei, nahiz interese duen orori, zabaldua dago. Irakasle eta jangelako arduradunek ere parte hartu dute aste honetako du. 20:30ean eta 22:30ean izango dira saioak.

Gaur Kultur Astearen baitan, kalejira berezia egingo dute abesbatzakoek

Aduna » Beste herri batzuetakoekin batera ariko dira; horretaz gain, pailazoak, barrikotea, taloak...

ERREDAKZIOA

Adunako Kultur Astearen azken asteburua izango da hau. Ekitaldi berezia antolatuko dute gainera gauegitarako. 12:00etatik aurrera, herriko koroak beste herri batzuetako partaideekin batera kalejira egingo dute.

Arratsaldean etxeko txikiak gozatuko dute gehien, Kiki eta Moko pailazoan *Ni natura naiz* emanaldia izango bait ikusgai, 17:00etatik aurrera. Ondoren barrikotea, taloak, gaztainak... izango dira guztientzat.

Bihar, amaitzeko, txerriari harrera eta txerri-boda (pintxoak, barrikotea,...) egingo dituzte eta eguerdian herri bazkariak itxiko du Kultur Astea.

«Inplikazioa eta konpromezua» genero indarkeriaren aurrean

Gizartea » Hainbat ekitaldi antolatatu dituzte Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira.



Josebe Iturrioz eta Onintza Lasa, atzo Tolosako udaldebako aurkezpenean. ir.

INIGO TERRADILLOS

Ospakizumerako ezezki, salaketarako, aldarrikapenerako eta hausnarketara egiteko markaturik egoten dira egun batzuk egutegian. Egun horietako bat da Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, datorren astearteko, hilaren 25a. Gai honen garrantziagatik egun bakarra baino urte osoa eskaini beharko litzaiokeela ez dago zalantzarik, eta hala erakusketan dute urtetik urtera, gainera, gai honen inguruko datuek. Herritarrek horretaz sentibilizatu aldera, eta gogoeta hori egun bakarrekoa baino izan ez dadin, hainbat ekitaldi antolatatu dituzte eskualdean.

Tolosan, Udaleko Berdintasun sailak antolatuta, ostegunean hasi ziren ekitaldiekin. Atzo, esaterako, abestien tailerra izan zuten Gazte Topagunean, hauen leloak eta mezuak aztertuz zituztelarik; bestalde, bihar arte, Topagunean bertan ikusgai gongo dira emakumeenganako indarkeriari buruzko berriak eta ideiak. Datorren asteari begira, film laburra eta luzea eta solasaldia eta mahai-ingurua izango dira gaiaren inguruan.

Hain zuzen ere, atzo egin zuten

Onintza Lasa Tolosako Udaleko Berdintasun zinegotziak eta Josebe Iturrioz Berdintasun teknikariak antolatatu dituzten ekitaldien aurkezpena. Lasak egunero eguneroko pairatzen dutela emakume askok indarkeria gogoratu zuten; «asko hori isiltzera behartuta sentitzen dira; beraz, guztiok inplikatu behar dugu, orain arte bezala, baina orain herritarren inplikazioa eta konpromezua nahi dugu bereziki». Hala, Eudelek bultzatutako kanpainarekin bat eginez, asteartean buzoietara banatuko den *puntu morea* leihotatik zintzilki jartzeko gonbita luzatu zuten.

Horretaz gain, buzoietan banatuko duten gidaren berri ere eman zuten. Gida horretan emakumeenganako indarkeria kasu baten aurrean eman beharreko iradokizunak eta pausoak zehazten dira,

eragile desberdinen telefono zenbakiekin lagunduta.

Josebe Iturriozek, bere aldetik, urte honetan Tolosan izan diren salaketen berri eman zuen. «Aurrean 18 kasu ireki ditu Ertzaintzak, eta gizarte zerbitzuetan ere beste hainbeste dituzte, gainera, ez da urrutira joan behar, aste honetan bertan izan dugu beste kasu bat; horietatik seik baino ez dutelarik salatuz; horretarako arrazoi ezberdinak egon daitezke, baina kasurik gehienetan oso zaila izaten da». Bestalde, «orokorrean hartu beharreko gaia» dela azaldu zuen Berdintasun teknikariak; «puntu asko landu behar dira, gazteetan bereziki, hezkuntza, komunikabideak, estereotipoak... azken 10 urteetan lan handia egin dugu, baina oraindik ere pauso handiak ditugu emateko».

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA SALATZEKO EUDELEN EKIMENA

Eudelek 71 udalerritako milioi erdi familia emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako adierazpena egitera deitu ditu ekintza sinkronizatu baten bidez, asteartean. Udallerri horietako bat izango da Tolosa. Hain zuzen ere, atzoko aurkezpenean, buzoietan banatuko den *Emakumeenganako Indarkeriari Ez leoa* duten kartelak jartzera gonbidatu zituzten herritarrek euren etxeko leihotetan. 500.000 etxetxetan bat egitea espero dute.

Aurrera begira

Hala, asteartean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean, adierazpen instituzionala onartuko dute ohiko bilkuran. Bertan, Udalak konpromisoa hartuko du «berdintasunaren alde politika aktibo eta koordinatua garatzeko». Halaber, atzoko aurkezpenean adierazi bezala, datorren urtean, protokolo bat jarriko dute martxan, «agente edo eragile guztiak bat eginda egon daitezten indarkeria kasuetan».

Bestalde, asteartean, Tolosaldeko Bilgune Feministak deituta, elkarretaratzea izango da Tolosako Triangulo plazan, eta bertaratzeko deia egin diete herritar guztiei.

Villabonan beste ikuspegi bat

Villabonan, bestalde, Hutsunea betez elkarrekin eta Udalak antolatuta, gaur *Te doy mis ojos* filma izango da ikusgai; dena den, astearteko antolatuta dute ekitaldi nagusia. Bilkura izango da lehendabizi, baina ez ohiko bilkura bat; «beste ikuspegi bat eman nahi izan diogu egunari, eta horregatik bilkura isila izan ordez, musikarekin izango da; izan ere, beti hilketa eta erasoengatik ari gara, eta bikoteen arteko tratua onartu behar dugu», azaldu du Hutsunea betez elkarrekin Susana Carreterok. Bilkurara bezala, ondoren egingo duten solasaldira gonbidatu nahi dituzte herritarrek. Gainera, sorpresa ere izango dela azaldu dute.

Laburrak

Ekaingo haitzulora bisita egingo dute bihar

TOLOSA » Ereite elkarrekin antolatuta, Ekain haitzulorearen erreplikara bisita egingo dute bihar. 10:30ean izango da irteera, Tolosako Renferren geltokia. Informazio gehiago nahi duenak edo izena emateko 678 63 83 94 telefono zenbakira deitu beharko du.

Diziplinari buruzko saioa, datorren asteazkenean

TOLOSA » Orixe Institutuko Guraso Eskolaren barruan, datorren asteazkenean, hilaren 26an, DBHko 1, 2 eta 3. mailako gurasoek saio bat izango dute Jose Francisco Amia-ma psikopedagogoarekin, 18:30etik 20:30era. Orixeko DBHko liburutegian izango da, eta bertan, seme-alabekin diziplina eraginkorra jartzeko estrategiak landuko dituzte.

Beldurrezko Zine Maratoia, gaur, Leidorren

TOLOSA » Gazteri Departamenduan zine emanaldi antolatuta dute gaurko eta biharko. Gaur Beldurrezko eta Fantasiaroko Zine Maratoiaren txanda izango da, 21:30etik aurrera Leidorren, eta bertarako sarrerak 20:30etik 23:30era eskuratu ahaliko dira. Bestalde, bihar, *Golazen* euskaraz egindako lehen film musikalararen estreinaldia izango da, 17:00etan, Leidorren. Emanaldia dohainik izango da baina gonbidapenak erakutsi beharko dira. Hauek ikastetxetxetan zabaldu dira eta soberran geratu direnak Leidorreko leihatilan izango dira.

Gaztetxearen urteurren ekitaldietako txartelak

ALEGIA » Abenduan ospatuko dute gaztetxearen urteurrena, eta urteurrenaren baitan egingo diren kostiladarako eta babarrun jaterako txartelak salgai jarri dituzte. Kostilada abenduaren 5ean egingo dute Zerbeza periaren baitan, eta 6 euro ordaindu beharko da txartela. Babarrun jatea, berriz, abenduaren 13an izango da, AHTren aurka daudenen aldeko egunean. Txartelak 12 euroko prezioa izango du.

» EGITARUAUK

Tolosa

- **Esekitokia.** Bihar arte emakumeen indarkeriari buruzko berrien eseikitokia eta ideien taula, Gazte Topagunean, Udalak antolatuta.
- **Zine Foruma.** *The Dead Girl* (Karen Mobcrieff, 2006) Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean, ostegunean, hilaren 27an.
- **Mahai-ingurua.** Emakumeenganako Indarkeriari buruz, HHI-EPAko egoitzan, ostegunean, hilaren 27an, 16:00etan. Miriam Herbonnek *Zertaz ari gara emakumeenga-*

nako indarkeriari buruz ari garenean? galderari erantzungo dio; Xabier Odriozola, berriz, *Zer egin dezakegu gizonezko berdintasunaren alde?* gaiaren inguruan ariko da. Tolosako Udalak antolatuta.

- **Film laburra eta eztabaida.** Iciar Bollainen *Amores que matan* film laburra, hilaren 28an, ostiralean, 18:00etan, Gazte Topagunean. Ondoren, gaiari buruzko eztabaida izango da. Udalak antolatuta.
- **Elkarretaratzea.** Asteartean, 20:00etan, Triangulo plazan, To-

losaldeko Bilgune Feministak deituta.

Villabona

- **Film luzea eta solasaldia.** *Te doy mis ojos* filma Gurea zinemaren, gaur, 19:30ean. Ondoren, solasaldia. Hutsunea Betez eta Villabonako Udalak antolatuta.
- **Bilkura.** Asteartean, hilaren 25ean, bilkura eta sorpresa izango da, Berdura plazan. Hutsunea Betez eta Villabonako Udalak antolatuta.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

«Udalak iritzi kritiko guztiak baztertu nahi ditu»

Tolosa » Udalak bultzatzen duen parte-hartze eredia «hutsaren hurrengoa» dela uste du herriko ezker abertzaleak.

ERREDAKZIOA

Tolosako ezker abertzaleak Udalak datorren hilaren 28rako deitu duen *World Cafe* ekimenaren karietara bere irakurketa eskaini du. Izan ere, Antton Izagirre, Eider Elduaien, Hektor Espin eta Silvana Ostiza hautetsi independentistek egin agerpenean azaldukoaren arabera, «eredu parte-hartzailearen ekimen gisa» aurkeztu du *World Cafe* Udalak, nahiz eta «bi urte hauetan hemen gauden lau ordezkari hauek, 2007. urtean 2.000 tolosarren babesaren lekuko garena, ez dugun parte-hartze hori bideratzeko inongo gonbidapenik jaso. Udal ordezkariak, eta bereziki alkateak, ezker abertzalearen proposamenak baztertzeko jarrera aktiboa» dutela ere salatu zuen Izagirrek. «Nola uleretzen duzue parte-hartzea?», gaineratu zuen hautetsiak.

Antton Izagirrek, hala ere, parte-hartzea ukatzearena ez dela bakarrik ezker abertzalearekin ematen azaldu zuen: «Udalak sistematikoki antolatutako herriarrek



Antton Izagirre, Hektor Espin, Eider Elduaien eta Silvana Ostiza. R.CALVO

Udalera eramaten dituzten ekimenak baztertzeko ditu». «Udalak uko egiten dio herri ekimen gisa herritarren kezken ordezkarietarekin bildu eta eztabaidatzera. Iritzi kritiko guztiak baztertu nahi ditu», gaineratu zuen.

«Hutsaren hurrengoa»

Era berean, bi urte hauetan Udal Batzordea «goitik behera edukiz hustu» dutela salatu zuen Izagirrek eta Udalean parte-hartzea «hutsaren hurrengoa» dela esan zuen. Izan ere, EAJren interesak babesteko Udalean hartzen diren hainbat neurri salatu zituen: «Ez dakigu zer ari diren erregulatzen. Barruko hainbat zerbitzu tekniko-erriko bazterkeria erabiltzen dute; EAJren interesen aldeko txostetik ez dutenean teknikoak kentzen

dute eta euren aldeko informale egingo dituzten berria hartzen dute. Agintariak daramaten parte-hartze politikaren adibidea da hau».

Hau guztia dela eta, aipatu *World Cafe* iraingarritzat jo zuten, «irudikatu nahi duten parte-hartze eredu hau antzeppen hutsa da gutxiengo demokratikoak ukatzen dituzte eta». Herritarrei zuzendutako mezurik ere izan zuen Izagirrek: «*World Cafe*an parte-hartzea erabaki badute hausnarketa egiteko eta joateko asmoa badute erantzukizunez jokatzeko».

Datozen egunetan herritarren parte-hartzearen gaiari helduko diotela ere azaldu zuen, «etorkizuneko Tolosa eraikitze beharrezkoa» dela uste baitu ezker abertzaleak.

Iaz baino neska gehiago Frontenis Txapelketan

Berrobi » Mutiletan 50 lagun ariko dira banaka eta 46 binaka; nesketan 7 bikotek hartuko dute parte, iaz baino hiru gehiagok.

ERREDAKZIOA

Hilaren 29an hasiko da Berrobiko Begi-Gorri elkarteak antolatu ohi duen Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa. Aurtengoko XVII. edizioan ere pozik daude antolatzaileak, izan ere jende asko animatu da txapelketan parte hartzera eta aurtengoa neska gehiago animatu dira, gainera.

Horiek horrela, mutilen artean

bi maila daude, banakakoa eta binakakoa, eta lehenengoan 50 lagun ariko dira eta binaka berriz 46. Nesketan binaka bakarrik ariko dira eta zazpi bikotek eman dute izena, iaz baino hiru gehiago. Mutilen kasuan «kopurua berdintxua» dela esan dute.

Giro oso ona

Antolatzaileak gogoz daude Frontenis Txapelketa hasteko urtero «oso giro ona» izaten baitute.

Partidak datorren asteburuan, hilaren 29 eta 30an hasiko dira eta abenduan, 6, 7, 8, 13, 14 eta 20 egunetan, izango dira gainontzeko partidak. Finala berriz abenduaren 21ean izango da.



Iazko txapelketan hartutako irudia. I.GARCIA

Astehenean hasiko dira kolektorearen adarreko lanak

Ibarra » Egingo dituzten lehen lanak Beheko Bide eremuan eta Errekondonea lurren inguruan izango dira eta hilabete iraungo dute.

ERREDAKZIOA

Astehenen honetan, hilak 24, hasiko dira Ibarra isurketak Zelai ibaira joan ez daitezen kolektore orokorreko adar osagarriaren la-

nekin. Obrak Beheko Bide eremuan eta Errekondonea lurren inguruan hasiko dira. Hauek eginda goiko zelaira pasako dira, behin-behineko aparkaleku gisa erabiltzen den tokira, etorkizunean eguneko zentroa egingo baitute hor. Obrak direla-eta zelai horretan aparkaleku murriztu egingo dela ere argitu du Ibarra Udalak. Lan hauek hilabete iraungo dute eta zati hori Eguberritarako amaituta izatea aurreikusten dute.

Errege Eguna eta gero

Errege Egunaren ondoren, berriz, obrak Julian Gayarre 27 zenbakira eta Euskal Herria 27 eta 35 zenbakietako dorreetatik behera pasako dira, Diputazioaren bideko bidegurutzeraino iristeko eta bi zatiak lotzeko.

Udalak esan duenez, UTE Benta Aundi obren adjudikazio-hartzailearekin eta Eusko Jaurlaritzarekin bildu berriak dira obra hauen inguruan hitz egiteko.

Laburrak

Ur mozketa izango da datorren asteazkenean

ELDUAIN » Elduaingo Udalak ohar baten bidez jakinarazi duenez, ur mozketa izango da herrian datorren asteazkenean, hilak 26. Zehazki 09:00etatik 13:00etara moztuko dute ura. «Herrian egin behar dituzten ur hornidurako instalazioetan egin behar diren lanen ondorioz beharrezkoa da aipatzen den egunean eta orduetan herriko ur tangatik hornidura denbora baterako ixtea», azaldu du, zentzu honetan, Elduaingo Udalak ohar baten bidez.

78. eta 79. hamarkadako enafaria, abenduaren 20an

IBARRA » Herritar talde batek Ibarra 1978. eta 1979. urteetan jaiotako pertsonen arteko enafaria antolatzen ari dira. Hitzordua datorren abenduaren 20an izango da herriaren bertan, Eluxka jatetxeko sagardotegian. Izena emateko epea abenduaren 13an itxiko dute. Antolatzaileek 78. eta 79. urtealdiko gazte guztiei parte hartzeko deia luzatu nahi diete eta izena emateko zein informazio gehiago jasotzeko 688 637 113 telefonora deituko esan dute.

Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu



Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

Jarduna

administrazio zerbitzuak

• KONTABILITATEA

• ZERGAK

• NOMINAK

• KOBRANTZAK

Martin Ugalde Kultur Parkea
ANDOAIN
943-30 40 30
administrazioa@jarduna.net

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
...ETA ORAIN
PROBIGURRAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Caripuyo herrikoak dira lagunduko dituzten ipar potosiar indigenak. Herria nekazal eskoletatik oso urrun daude. HITZA

Bihar Alegian Bigarren eskuko I. Azoka antolatu du Kultur Batzordeak; ateratako dirua Boliviako Ipar Potosiko lurralde txiro batera bidaliko dute bertako ikasleei laguntzeko.

Alegiako azokatik Ipar Potosira

NEREA URBIZU

Herriarrek erabili nahi ez baina egoera onean dauden hainbat material Alegiako Kultur Etxean utzi dituzte. Zertarako? Dagoeneko nahi ez dituzten gauza horiek beste batzuk erosteko aukera izateko. Erositako hori oso merke jarriko dute Alegian, prezio sinbolikoak izango dira. Zertarako dirua? Diru hori Ipar Potosira bidaltzeko eta dituzten behar batzuei aurre egiteko. *Udazkenean Kultura* kultur ekitaldiak bat da biharkoa.

Hilabete osoan zehar materiala biltzen aritu dira Kultur Etxean: arropa (ume, gizon nahiz emakumearena), liburuak, jostailuak eta eskolarako materiala utzi dute Kultur Etxean eta joan den astean Kultur Batzordeko kideak material hau banatzen eta sailkatzen aritu ziren, igandeko azokan txukun-txukun egoteko.

Hasiera batean, arropa, diskoak, jostailuak eta liburuak eskatu zituzten, baina etxeko apaingarriak ere izango dira. «Disko asko ez ditugu bildu, baina arropa, adibidez, asko dago. Horretaz gain, etxea apaintzeko gauzak ere badaude. Jendeak ulertu du nahi genuena, hau da, herrian saltzeko gauzak zirela eta gauzak txukunak izan behar zirela».

Saltzen egongo den materiala oso merke izango da, «sinbolikoak». Erosteko aukera egoteaz gain, «laxatuak ere izango dira, nahi duenak dirua emateko ezer erosteko beharrik gabe».

11:00etan irekiko dute azoka eta eguraldiari begira egongo dira. Hasiera batean plazan izango da baina eguraldi txarra eginez gero,



Kultur Etxean herritarrek utzitako material guztia txukuntzen aritu ziren. Irudian, arropak. N. U.

Elorri pilotalekuan prestatuko dituzte postu guzti-guztiak. «Azokako produktuez gain, taloa jateko aukera izango da ere», azaldu du Kultur Batzordeko kidea den Mairder Jauregik.

Potosira, zergatik?

Esan bezala, azokan bildutako diru guztia Ipar Potosira bideratuko dute. «Bi proiektu bateratu ditugu azokaren kontu honekin. Alde batetik, bigarren eskuko azoka bat egin nahi genuen, Kultur Batzordearen ideia izan zen, Tolosaldeko beste hainbat lekutan egiten zirela

ere ikusten genuen». Era berean, «bigarren eskuko azoka honi kausa bat bilatu behar zitzaion, arrazoi bat». Joseba Llamas apaiza alegiarrak Bolivian dago aspaldianik misiolari, eta Udaletxera jo zuen laguntza eske.

Llamasen eskaerari erantzunez, bigarren eskuko azoka baliatu zuten laguntzeko Kultur Batzordekoek. Beraz, «bi proiektu bateratu genituen azokaren kontuarekin». Dirudienez, materiala lehen ere bidaltzen zen, baina «bidaltzeak ez du konpentsatzen, bidean galdu daitekeelako, eta koste handia

duelako ere». Dirua, ordea «beti iristen da, eta gainera, han ekoiztutako produktu eta materialak eros daitezke, han inbertitu, hain zuzen ere».

Azoka egunean saldu gabe ezer geldituko balitz «irtenbideren bat emango diogu: tartean Emausera eramateko aukera dago. Behar dutenei emango genieke».

Azokan jasotako dirua Boliviara bidaliko dute eta Ipar Potosiko Caripuyo lurralde behartxuko eskuletara ailegatuko da. Mairder Jauregi Kultur zinegotziak azaldu du «hango barnetegiak ez direla

» HAINBAT DATU

- **Azoka.** Bigarren eskuko I. Azoka.
- **Ordua.** 11:00etan hasita.
- **Lekua.** Alegiako Plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Elordi frotoian.
- **Salduko diren produktuak.** Jostailuak, diskoak, liburuak, bildumak, arropak, oinetakoak, etxea apaintzeko gauzak...
- **Prezioak.** Sinbolikoak izango dira, merke-merkeak.
- **Dirua.** Ipar Potosiko indigenen eskola batera joango diren ikasleen egonaldietarako materiala erosteko izango da.

eskolak», hau da, eskolan ikasi ahal izateko, barnetegi moduko haue-tan loa eta egonaldia eskaintzen diete, etxetik eskolara ordu asko baitituzte, eta «halako zerbitzurik ez badute, ez dute aukera handirik eskolara joateko». Diru honekin

Jasotako diruarekin, besteak beste, ikasle txiro hauen loaldia eta egonaldia ordainduko da

Joseba Llamas apaiza Bolivian dago aspaldi eta udaletxera jo zuen laguntza eske

Hilaren 28an bertso poteoa eta bertso afaria antolatu dute Zazpi Astoren Gaineanekoek

ikasle indigena hauek aterpe moduko honetan behar duten materiala izango dute. Kasu honetan, aterpe zehatz batera bideratuko da dirua.

Indigenei beraien kultura maitatzeko lanean ere bai

Eskola eta aterpe hauek indigena hauei berauen kultura maitatzeko saiakera egiten dute: «Gaztelaraz ikasi nahi dute eta haien kultura gutxietsita bezala dute». Haien hizkuntza balio handikoa dela ikusiarazi egiten zaie, eta baita beraien burua ere.

Aurreko egun batean Ipar Potosiri buruzko proiektioa izan zen Alegiako *Udazkenean Kulturaren* baitan. Kultur eta Kirol Etxean izan zen, eta «oso erantzun ona izan zuen. Proclade Gobernuz Kanpoko Erakundeko bi kide ere izan ziren azalpenak ematen».

Hurrengo ekitaldia ostegunean

Udazkenean Kulturaren baitan hurrengo ekitaldia azokaren ondoren, osteguneko izango da, hilaren 27koa, hain zuzen. Kasu honetan, immigrazioari buruzko zine-foruma izango da eta *Flores de otro mundo* da ikusi ahal izango dena Kultur Etxean.

Hilaren 28an, berriz, bertso poteoa eta bertso afaria antolatu du Zazpi Astoren Gainean bertsozale taldeak. Unai Muñoz eta Iñaki Gurruztexaga gonbidatu dituzte eta In-txurre elkartean bilduko dira, herriari aritu ondoren.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialea: 687 410 034. alegialea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzailea: 687 410 118. leitzailea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

- **Altzo.** Loatzo musika eskolako ikasleen Santa Zezilia kontzertua 11:00etan.
- **Ibarra.** Kaotiko eta Montons taldeek Ibarra Kontzertuean kontzertua eskainiko dute 22:30ean.
- **Tolosa.** Mulambo frikifesta Bonberenena 22:30ean.

Kultur asteak

- **Aduna.** 12:00etan herriko korak beste herri batzuetako partaide batzuekin kalejira kantatuz, 17:00etan Kiki eta Koko pailazoaren *Ninatura* naiz emanaldia eta ondoren, barrikotea, taloak, gaztainak...
- **Alegia.** Hilaren 28an, bertso-poteoa 19:30ean Unai Muñoa eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariekin eta Eider Zubillaga eta Maider Zabala trikitalariekin; 21:00etan bertso-afaria Intxurre elkartearen. Txartelak Kultur Etxean salgai 17 euroren truke (azararen 26a arte). *Udazken kulturaren baitan.*

Deialdiak

- **Ikaztegieta.** Gaztain eta talo jantzia 19:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** Txapelaren lehiaketa: Txapela nork ondoen jantzi lehiaketa Txinparta elkartearen, 11:30etik aurrera.
- **Tolosa.** Babarrunaren Ekizleean

Lehiaketa eta lakari baten enkantea 08:00etatik aurrera, Triangulo plazan. Irabazlea nor den jakin ostean, 13:15ean, enkantea egingo da. Bilidutako dirua Togoko San Pauli ikastetxeko elizbarrutiko eskolarako izango da.

■ **Tolosa.** Kultura gorraren jardunaldiak San Frantzisko pasealekuko 12. zenbakian (Hirukide Jesuitanatan), egun guztian zehar.

■ **Tolosa.** Babarrun Astearen baitan, urtero bezala, herri bazkaria izango da bihar Zerkausion, Gure Kaiola elkarteak antolatuta. Bazkarirako txartelak elkartearen bertan erosi daitezke jada, 22 eurotan, 19:30etik 21:00etara. Baita Zerkausion ere.

■ **Tolosa.** Milagrosaren bederatziruena lurreamendi Egoitzako kaperan, 08:00etan astegunetan, 9:00etan jaiegunetan eta arratsaldeetan, 16:00etan. Mezaren aurretik errosarioa errezatuko da.

■ **Tolosaldea.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren 13an, BECen antolatuta duen ekitaldira autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoitzan 11 eurotan (bazkideek, 8 euro).

Azoka

■ **Tolosa.** Azoka eta babarrun daketak Triangulo plazan, 09:00etatik aurrera, babarrunaren ohiko azoka. 12:00etan, Babarrunaren kofradiaren eskutik, aukera izango da Tolosako lekalea jateko dohainik, baita, sagardoa edateko ere. Horretarako, 35 kilo babarrun baino gehiago prestatuko dituzte.

■ **Tolosa.** Artisautza feria San Frantziskon: Napalur artisau taldearen 20 postu egongo dira. Liburuaren Azoka ere badago leku berean.

■ **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaria abenduaren 13an Maite Amonariz kapitaina agurtzeko. Izen-ematea, 699 551765 zenbakian.

Jaiak

■ **Amasa.** San Martin jaiak: 11:00etan haur krosa, 16:00etan haur jokoak Kulkirekin, 19:00etan argazki lehiaketako sari banaketa eta 23:00etan Lain eta Hesian taldeen kontzertua.

Zinema

■ **Tolosa.** Fantasiako eta beldurrezko zine maratoia Leidor aretoan 21:30etik 03:30era: Fantasia eta beldurrezko Euskadiko labur-

metriak, *Millennium Actress* japoniar animaziozko luzemetraia eta *Dejame entrar*.

Kirola

■ **Tolosa.** Oargi elkartearen Boulder txapelketa 15:00etatik 21:00etara 3 kategorietan; haurrak, gazteak eta seniorrak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943673649.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanenetan irizitzen erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan politte!

Ioar Olano Sanchez. Gaur 2 urte. Segi hain alai eta maitagarria izaten. Muxutxoak izaberen partetik.

943 671 427

antzerkiak osatzen: Tolosaldea, Tolosa, Leizor, Ibarra, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

villabona optika

%30eko deskontua progresio lenteetan

*Baliozko promozioa betaurreko osoen erosketan.

Kale Berria 23A • Villabona • Tel.: 943 11 18 40

jaialdia

HERNANIKO KULTUR ETXEAN

ALDEKO BERTSO JAIALDIA

ARRERA: 5 EURO

Azaroak 28 OSTIRALA GAUEKO 10ETAN

Egunkaria libre!

Gai-jartzailea: GORNA TOLOSA

Jantzi dotore, jantzi hitza.

Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa denda
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAREN Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info